

AURRERAPEN-TAILERRETAN ATERATAKO ONDORIOAK

Sondika, 2018-03-13

Bertaratutakoen kopurua: 6

1. BIODIBERTSITATEA ETA BALIO NATURALAK: JARRAITUTASUN EKOLOGIKOA, LANDA-INGURUNEA SUSTATZEA ETA PAISAIA HOBETZEA.

IBAIEN IBILGUAK ETA IBAIERTZAK

- > Asuako itsasadarrean urak hartzen du errepidea. Eskumenen arteko gatazka: "Udalak ez du konpontzen, Foru Aldundiaren eskumena dela diolako".
- > Asuako itsasadarra lindanoz kutsatuta dago.

2. HIRI-EREDU OREKATUA: ETXEBIZITZEN BEHARRA ETA ESKAINTZA, ETA JARDUERA EKONOMIKOAK.

ETXEBIZITZA SOZIALEN MERKATUA

- > Etxebizitza sozialen merkaturak bultzatu behar da, baina landa-lurzorua hiri-lurzoru bihurtu gabe: lurzoru berriak garatu ordez lehendik dauden etxebizitzak erabili behar dira.

HURBILEKO MERKATARITZA

- > Tokiko dendetan prezioak ja ditzatela, supermerkatu handietan egiten duten bezala.

3. KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORU ESTRATEGIKOEN BERRONERATZEA.

LURZORUAK BERRONERATZEA

- > Asuako itsasadarra lindanoz kutsatuta dago.
- > Lurzoru kutsatua egindako eraikin batzuk ez daude erregistratuta.
- > Barakaldon, Arrontegiko zubiaren azpian, kutsadura handia dago.

4. MOTORRIK GABEKO GARRAIO-MODUAK, GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALITATEA.

- + Erandio elkarren arteko loturarik gabeko hiru herri osatzen dute.
- + Lehentasuna: oinez eta bizikletaz ibiltzeko lotura landa-eremuen eta hiri-eremuen artean.

APARKALEKUAK

- > Erandion aparkatzeko arazo handiak daude. Arazoak konpontzeko, aparkaleku publikoak behar dira, ez pribatuak. "Eraikuntza bakoitzeko aparkaleku batzuk utzi behar dira, baina ez dago ondo plaza publikoak kentzea".

MODU BATERAGARRIAK

- > Erandiok landa-bide sare handia du, oinezkoentzat soilik izateko nahikoa, autoak ibili gabe (edo oso auto gutxi ibiltzeko). Oinezkoen bide bat edo GR bat ezin daiteke joan ibilgailuen bidetik: bateraezinak dira.

> Goierri aldeko bideak: zenbait herri oinez lotzeko prestatzea.

TRENBIDEA

> Lutxana-Erandio-Larrabetzu metroa.

TXARTEL BAKARRA

> San Ignaziora joateko, bi txartel hartu behar dira.

BIZIKLETA

> Bidegorria: UPV-EHU Leioa – Akarlanda – Martiartu dorretxea.

5. ONDARE MATERIALA, ONDARE UKIEZINA ETA PAISAIA: IDENTITATEAREN ADIERAZPIDEA, ABERASTASUNA ETA ENPLEGUA.

PAISAIA INDUSTRIALA ETA MEATZARITZAKOA

> Eraikin historikoak berreskuratzea: Martiartu dorretxea, Erandioko errota.

> Hiri-eremua eta landakoa bidez lotzea, eta bide horiek toki gogoangarrietatik igarotzea, hala nola Martiartu dorretxetik.

> Erandiok bazituen arau subsidiarioen bidez babestutako eraikinak, eta bota egin dituzte (adibidez, errota).

GARAPEN TURISTIKOA

> Erandion baliabide ekonomiko gisa ustiatzeko garapen turistikoa egin daiteke.

6. LEHENDIK DAUDEN HIRI-BILBEEN JARRAIAN EZ DAUDEN EKIPAMENDU BERRIAK ETA ERABILERA MASIBOKO EREMUAK MURRIZTEA.

PERTSONA ADINDUAK

> Hainbat pertsona adindu babesik gabe daude.

> Ekipamenduak bananduta daude: gauza batzuetarako Areetara joan behar da, eta beste gauza batzuetarako Deustura.

> Etxebizitzak egiten ari dira, baina benetan falta dena zerbitzu gehiago jartzea da. Eraikitzen ari diren etxebizitza guztientzat zerbitzu nahikoak behar dira.

7. UDALERRIAZ GAINDIKO ESTRATEGIA LURRALDE OSOAN.

JARDUKETA EFIZIENTEAK

> Eremu bereko herrien batasuna.

> Erandio betidanik izan da Txorierrri, eta orain Uribe Kosta da. Zalantza: Zer gara?

> Erandion 3 herri desberdin daude... Non dago udalerriaren identitatea?

ITSASADARRAREN ANTOLAKETA

> Erandioko Txurruka pasealekua berreskuratzea.

8. ZEHARKAKO GAIAK ERA ESPLIZITUAN INTEGRATZEA: GENEROA, HAURRAK, OSASUNA, IRISGARRITASUNA, EUSKARA ETA KLIMA-ALDAKETA.**KLIMA-ALDAKETA**

> Udalerriak gaindiko Tokiko Agenda 21 (inplikaturako udalerri guztiak).

HAURRAK

> Zaintza gehiago behar da: lapurreta-arazoak daude.

OSASUNA

> Erandioko herritarrek Urdulizera eraman nahi dituzte, Leioako ospitalea bota ondoren. Osasun-arreta gertuago jarri behar da. Erandioko anbulatorioa handiagoa izan zitekeen.

> Gazteentzako etxebizitza asko eraikitzen dira, baina Erandio Goikoan ez dago pediatriarik.

> Eraikitzen ari diren etxebizitza guztientzat zerbitzu nahikoak behar dira.

1. BIODIBERTSITATEA ETA BALIO NATURALAK: jarraitutasun ekologikoa, landa-ingurunea sustatzea eta paisaia hobetzea.

1_1	Eremu naturalak, landakoak eta hirikoak lotzea , eta zatiketa ekologikoa eta paisajistikoa geldiaraztea.	●●
1_2	Korridore ekologikoetan hezeguneak eta baso autoktonoak berreskuratzea .	●●
1_3	Itsasadarren eta ibaiadarren inguruko gunetan lurzoru hutsen balioa handitzea .	
1_4	Ibaien ibilguen eta ibaiertzen okupazioa eragozte a, ur-goraldiek eta uholdeek eragin ditzaketen kalteak minimizatze aldera.	●●●
1_5	Hiri-baratzeak : lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta baina garatu gabe dauden nekazaritza-lurzoru etan eremu potentzialak mugatzea .	
1_6	Garatu gabeko lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeko aukera aztertzea , nekazaritza-eremu estrategikoetan nekazaritzarako balio handiko lurzoruak berreskuratze aldera.	
1_7	Produktzioarako potentziala duten eremuetan baso-sartzeak egitean, natura-baliabideak oso ahulak ez diren tokietan jartzea.	
1_8	Onura publikoko mendietan, espezie bakarreko baso-sailen ordez espezie autoktonoz osatutako basoak sortzea pixkanaka, azpiegitura berdearen korridore ekologikoei lehentasuna emanez.	

2. HIRI-EREDU OREKATUA: etxebizitzaren beharra eta eskaintza, eta jarduera ekonomikoak.

2_1	Udalerrri bakoitzean enplegu-eskaintza eta langile kopurua orekatzea.	
2_2	Hiri-eredu trinkoa eta erabilera mistoak , erabilera bakarreko eremurik gabe (lo-auzoak, merkataritza-eremu isolatuak...).	
2_3	Gaur egun behar diren baino etxebizitza gehiago planifikatutako eremuetan bizitegi-gune gisa kalifikatutako eremuak murriztea edo ezabatzea , dentsitate txikikoak, batez ere.	
2_4	Lurzoru kutsatuen kudeaketa eta lurzoruaren kalitatea lurralde-plangintzaren aurretiko faseetan integratzea, hiri-berroneratzea sustatzeko oinarritzko faktore diren aldetik.	●●
2_5	Irisgarritasuna eta konexioak hobetzea garraio kolektiboen bidez, oinez eta bizikletaz , hirigune finkatuak hiriaren erdialdearekin, ekipamenduekin eta azpiegiturekin lotzeko.	
2_6	Etxebizitza sozialen merkatua bultzatzea erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben bitartez, alokairuko etxebizitza babestuen bidez...	●
2_7	Etxebizitza hutsetan eta alokairuko etxebizitzetan esku hartzea , zehapen-mekanismoak ezarrita.	●●
2_8	Jarduera ekonomikoa bultzatzea lotura onak dituzten eremuetan eta/edo eremu estrategikoetan (intermodalitate-guneak edo irisgarritasun handiko guneak, lehentasunez berroneratzeko eremuak edo desklasifika daitezkeen lurzoruak).	
2_9	Hiriguneetan etxebizitzekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoei eustea .	

2_1 **Hurbileko merkataritza sustatzea**, aldirietako merkataritzaren gainetik, eta merkataritza-gune handien azalera mugatzea.

3. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru estrategikoen berroneratzea.

3_1 **Industria-pabiloi hutsak leheneratzea**, eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta-estrategiak diseinatzea, industria-lurzoruen urbanizazioari eusteko.



3_2 **Lurzoru berriak industria-jardueretarako ez okupatzea**, hutsik dauden lurzoruak berroneratu arte.



3_3 **Berroneratu behar diren lurzoruak identifikatzea**; bereziki, kutsatuta egon daitezkeenak.



4. Motorrik gabeko garraio-moduak, garraio publikoa eta intermodalitatea.

4_1 Garraio publikoko geltoki intermodalen ondoan **aldageltokiak** aurreikustea, **aldirietako aparkaleku eta guzti**.

4_2 **Bilboko metropoliko hegoaldeko saihebidia** (Supersur) erabiltzearen alde egitea, gaur egun A-8 autobidean dabilen trafikoa hein handi batean arintzeko.

4_3 **Aparkaleku publiko eta pribatuen eskaintza kudeatzea**, autoaren erabilera beste garraiobide iraunkorrago batzuekin bateratzea bultzatzeko.



4_4 **Txartel bakarra** aplikatzea garraiobide eta operadore guztiei, garraio-aldaketak errazteko eta erabiltzaileen fidelizazioa sustatzeko.



4_5 **Trenbidea garatzea, metropoliko zein kanpoko ibilbideetan**, eta trenbide-sistemen funtzionamendu integratua sustatzea.



4_6 **Garraio publikoen geltokiek erabiltzaile nahikoa izan dezaten bultzatzea**, hiri-eredu trinko eta mistoei esker.

4_7 **Ibilbide eta eremu berberak dituzten oinezkoak, ziklistak eta sistema motordunak** bateragarriak izateko neurriak ezartzea.



4_8 Partaidetzako diseinua, **erabiltzaileen askotariko premiak** aintzat hartuta: rolak, aniztasun funtzionala...

4_9 **Garraio metropolitarrerako hainbat sistema konektatzea** (bizikleta, autobusa, autoa...) intermodalitate-nodo berrien bitartez.



4_10 **Bizikleta: erabiltzaileen kopurua** handitzeko irtenbideak, **segurtasuna** hobetzea, elkarren ondoko **eremuak konektatzea**, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak eta garraio publikoen geltokiak.



5. Ondare materiala, ondare ukiezina eta paisaia: identitatearen adierazpidea, aberastasuna eta enplegua.

5_1	Hiri-paisaiatik landa-paisaiara arteko trantsizio-paisaietako erabilerak eta jarduerak erregulatzea , hirialdeen hedapena eragozte aldera, eta oinezkoak bi eremuen artean ibiltzeko erraztasunak jartzea.	
5_2	Paisaia industrialen, meatzaritzakoen eta militarren elementu eta gune bereizgarriak berreskuratzea , paisaia interpretatzeko eta memoriaren zabalkunde bideratzeko.	●●
5_3	Erabilera publikoaren antolaketa, habitat naturalekin bateragarria izan dadin, habitat horien balioespina helburu hartuta.	
5_4	Oso agerian daudelako edo ezaugarri formal eta erabileragatik ikusizko inpaktuak eta/edo egiturazkoak eragiten dituzten elementuak paisaian integratzea .	
5_5	Kultura-ondarearen elementu materialei eta ukiezinei (euskara, jaiak, erromeriak, kirolak eta abar) balioa ematea, zaindu beharreko identitatearen eta bizi-kalitatearen adierazpide diren aldetik.	
5_6	Herritarrek memoria kolektiboaren adierazpidetzat hartzen dituzten gune geografiko identitarioak identifikatzea.	
5_7	Arnasguneen eragin-eremua identifikatzea, eta lurraldearekiko interrelazioa bultzatzen duten komunikazio-sareak nabarmentzea.	
5_8	Herritarrek kultura eskuratzeko aukerak hobetzea , bai hirialdeetan bai landa-inguruetan.	
5_9	Ondare naturala eta kulturala garapen sozioekonomiko iraunkorraren ereduarekin bateragarria izango den aktibo bihurtzea.	
5_10	Lurralde naturalaren eta hiri-ingurunearen harrera-gaitasunarekin bat datorren garapen turistikoa planteatzea.	

6. Lehendik dauden hiri-bilbeen jarraian ez dauden ekipamendu berriak eta erabilera masiboko eremuak murriztea.

6_1	Ekipamenduak –batez ere, ikastetxeak– ez deslokalizatzea aldirietara eramateko.	
6_2	Ekipamenduen eta zerbitzuen gertutasuna bultzatzea, eta oinez, bizikletaz edo garraio kolektiboan joateko erraztasunak jartzea.	
6_3	Indarrean dagoen lurralde-plan partzialeko parke metropolitarraren edo aire zabaleko aisialdi-eremuen mugak berrikustea , baita Arenan proposatutako parkearenak ere.	
6_4	Parke metropolitarreri harrera-gaitasunaren arabera erabilerak ematea, aisia-erabilera eta natura-balioa bateratuta, eta lurzoruen jabetza kontuan hartuta.	
6_5	Pertsona adinduen behar eta eskaerak aztertzeo gizarte-ikerketak egitea.	●
6_6	Hurbileko ekipamenduak aintzat hartzea, auzoko harreman-sarea, bizi-kalitatea eta osasuna sustatzeko gune diren aldetik.	

7. Udalerriaz gaindiko estrategia lurralde osoan.

7_1	Udalen jarduketan artean lehiarik ez sortzea , edo ahaleginak ez bikoiztea.	●●●
7_2	Udalerrien planeamenduak koordinatuta idazteko eta garatzeko mekanismoak ezartzea , udalerrien arteko mugak gaindituz, behar izanez gero.	●●
7_3	Bilboko itsasadarraren inguruaren antolamendu global eta orekatua planteatzea.	●

8. Zeharkako gaiak era esplizituan integratzea: generoa, haurrak, osasuna, irisgarritasuna, euskara eta klima-aldaketa.

KLIMA-ALDAKETA		
8_1	Klima-arriskuen eraginpean egon daitezkeen eremuak identifikatzea (bereziki kostaldeak): bero-uhartea, uholde-arriskua, itsas mailaren gorakada, baldintza geoteknikoen aldaketa...	
8_2	Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak lurraldea indartzeko, haren irauteko gaitasuna sendotzeko eta ingurumenaren aldaketetara egokitzeko.	
8_3	Nekazaritza-jarduerak dibertsifikatzea, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen integratua, ekologikoa, tokikoa eta berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen dituen sustatzea.	
8_4	Hiriko eta aldirietako berdeguneak lotzea eta ibai-ekosistemak integratzea, bero-uharteen ondorioak murrizteko.	
OSASUNA		●
8_5	Bizitegietatik gertu berdeguneak eta aisialdirako tokiak aurreikustea planeamenduan.	
8_6	Bizitegi-eremuetan eta hirien erdialdean trafikoa lasaitzeko neurriak bultzatzea.	
8_7	Enpleguaren gertutasuna eta aniztasuna sustatzea, gizarte-bazterketa arriskua murriztea eta osasunaren arloko gizarte-desberdintasunak gutxitzea.	
8_8	Oinez eta bizikletaz ibiltzeko sareak hobetzea, eta mugikortasun aktiboa eta jarduera fisikoa bultzatzea.	
GENEROA		
8_9	Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko, bidean behar den denbora murriztea , askotariko erabilerak kokatuz eta distantziak laburtuz.	
8_10	Zenbait gizarte-taldek arriskutsutzat jotzen dituzten guneak identifikatzea (bereziki emakumeekin, pertsona adinduekin eta haurrekin lan eginez).	
HAURRAK		

8_11	Ikastetxeetako patioek hirien berroneratze-prozesuetan duten eginkizunari balioa ematea, espazio publikoan integratutako erabilera anitzeko guneak diren aldetik.	
8_12	Haurren autonomia pertsonala bultzatzea udal-ekintzen bidez.	
EUSKARA		
8_13	Euskarazko toponimoak edo terminoak erabiltzea.	
8_14	Arnasgune diren udalerriak babestea eta sendotzea , eta lurraldearekin duten lotura sustatzea.	
IRISGARRITASUN UNIBERTSALA		
8_15	Oinarrizko ekipamendu eta baliabideak herritar guztien eskura daudela bermatzea.	
8_16	Lurraldean dauden oztopo motak identifikatzea eta aztertzea.	